

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua hezkuntza-komunitatera bideratuta dago, interes berezia jarraiaz Hezkuntza Sailean. Negozio eredu honek hezkuntza eta didaktika munduko segmentuak ukitu dezake. Honekin batera, sortzeke dagoen produktuak eskola kopuruaren arabera, erosle kopurua ere aldatu lezake, hala ere erosle garrantzitsuenak beti eskoletako ikasleak izango dira.

Sortzeke dugun produktuak merkatu nitxoan edukiko du, hau da, bezero oso zehatzak eta bereizgarriak izango ditu. Gure ideien xede publikoa hezkuntza eragileek osatzen dute, adibidez, eskola pribatuak, publikoak, kontzertatuak...

Merkatu segmentazioaren ezaugarri nagusia hezkuntzaren digitalizazioak sortzen dituen arazoei soluzio bat ematea da, horrela, ikasle guztiei eskura jartzeko aukera bermatuko genuke eta honekin batera hezkuntza digitalizatuari erabilpena eman. Honekin, hainbat aplikazioen bidez euskararen erabilpena sustatzeko baliagarria izango zaie gure bezeroei. Beste aldetik, hezkuntzarako baliabide hau haur guztientzako da, beraz onuragarria da hezkuntza sailerako eta egoera ekonomiko larri batean dauden familientzako. Azken finean, hezkuntza sailak produktu honekin hainbat onura izango ditu.